



**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUDEL ETA EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILAREN ARTEAN, JARDUERA PROTOKOLO BAT ZEHAZTEKO, EUSKADIKO UDALERRIETAN TERRORISMOA GORATZEKO PINTADAK ETA KARTELAK EGOTEA PREBENITZEKO ETA EZABATZEKO HELBURUA DUENA**

Alde batetik, **Rodolfo Ares Taboada jauna, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburua,**

Bestetik, **Jokin Bildarratz Sorron jauna, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) elkarteburua,**

Bi alderdiek, dagozkien karguen bidez eta eman dieten ahalmenak erabiliz, akordio hau gauzatzeko legitimotasun eta gaitasun nahikoak aitortzen dizkiote elkarri eta, horretarako,

**ADIERAZI DUTE:**

**I.-** Bi erakundeak jabetzen dira Euskadiko plaza, kale eta eraikinen paretak terroristak justifikatu eta laguntzen dituztenek erabiltzen dituztela pintadak egin, pankartak eseki eta kartelak itsasteko, legea urratuz eta terrorismoaren biktimen oroimena eta duintasuna irainduz.

**II.-** Gaur egungo legeriak pintadak egitea eta kartelak jartzea galarazten du, baldin eta terroristak goratzen, goraipatzen eta omentzen baditu eta terrorismoaren biktimak iraindu eta umiliatzen baditu. Hori dela eta, derrigorrezkoa da erakundeek bere esku dauden baliabideak erabiltzea ekintza horiei aurre egiteko eta saihesteko, eta behin gertatuz gero, ahalik eta azkarren kentzea eta ezabatzea.

Zehazki, ekainaren 19ko 4/2008 Legeak, *Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoak*, Duintasuna aipatzen duen 4. artikuluan haxe dio:



*“Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako: (...)*

*-b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umilazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goستن dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte”*

*Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak ere, Zigor Kodearenak, jarduera horien larritasuna adierazten du 578. artikuluan, hala, kartzela zigorra ere aurreikusten du:*

*“edozein adierazpide edo hedabide publikoren bitartez goretsi edo bidezkotzen badira kode honen 571. artikulutik 577.eraoetan jasotako delituak, horien egikaritzan parte hartu duten pertsonak, edota terrorismo-delituetak biktimen edo beraien senideen izen ona zikintzea edo horiek gutxietsi nahiz umiliatzea dakarten egintzak gauzatzen badira, orduan, (...)”*

**III.-** Bi erakundeak jabetzen dira auzi honek duen garrantziaz eta bat datoz sinbologia mota hori eta terrorismoa goratzea edo goraiatzea errotik moztu behar dela. Hori dela eta, indarrean dagoen legeriak aurreikusten duen moduan, bitara jardun behar da: a) lehenik, zaindu behako da terrorismoa goratzen eta goraiatzen duten legez kontrako pintadak eta kartel jartzeak ekiditea; eta, b) burutzen badira, lan egin beharko da gure kale eta herrietatik ahalik eta azkarren desager daitezen.

**IV.-** Bi erakundeek gai horrekin duten sentiberatasuna erakusteko, eta ahalik eta koordinazio handiena lortu nahi denez, legez kontrako ekintza horiek prebenitzeko eta ekiditeko helburu komuna erraztera eta pintadak nahiz kartelak ahalik eta azkarren kentzera eta ezabatzerazuzenduta dagoena, bi erakundeek lankidetzahitzarmena sinatuko dute Jarduera protokolo bat zehazteko Euskadiko udalerrietan terrorismoa goratzeko pintadak eta kartelak egotea prebenitzeko eta ezabatzeko.

Hortaz, **HITZARMEN** honen helburua da:

**LEHENENGOA.-** Bi alderdiek hitzematzen dute zaintza, prebentzio eta pedagogiako lanak muturreraino eramango dituztela bakearen kulturaren ulertu behar baitugu



*Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko den ekainaren 19ko 4/2008 Legean* aurreikusitako helburuak lortzeko modurik eraginkorrena terrorismoa goratzeko pintadak egitea eta kartelak jartzea bezalako legez kontrako ekintzak burutzea prebenitzean eta saihestean datzala. Gauzak horrela, aipatu Legearen 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, euskal aginte publikoek, bere eskumenen, aukeren eta baliabideen arabera, helburu horretarako zaintza eta prebentzio neurri egokiak hartuko dituzte.

Aurrekoaren ondorioz, Ertzaintzaren eginkizuna izango da zaintzako eta prebenitzeko neurri horiek muturretara eramatea, ekainaren 19ko 4/2008 Legean jarritako edozein motatako pintada edo pankarta jartzea saihesteko.

Ertzaintzak egin beharreko lan horiek beteko dira udalerrietako Udaltzaingoeekin adostu daitezkeen koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak kaltetu gabe, hori dena *Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko ekainaren 17ko 4/1992 Legearen 20.* eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

Orobat, prebentzioko lanen barruan, eta 4/2008 Legearen 4. artikulua urratzen duten pintada eta kartel mota horiek herriko patroia jaietan jartzea gehiagotan gertatzen denez, udalek, bere eskumenen esparruan, formula batzuk aztertu beharko dituzte terrorismoa goستن duten edota biktimen eta haien familiakoen mespretxua edo umilazioa dakarten kartelak edo pankartak jai-gunean erakustea ekiditeko.

Ildo horretatik, udalek arreta berezia jarriko diete txosnak jartzeko lizentziak ematea arautzen dituzten oinarriek; horretarako, mekanismoak antolatuko dira, esaterako: administrazio-zehapenak, abalak burutzea edo lizentziak deuseztatzea, 4/2008 Legearen 4. artikuluan ezarritakoa urratzen duten elementuak nahita jartzen hasiz gero, hori guztia saihestu gabe egintza horien arduradunei egokituko dieten ekintzak.

**BIGARRENA.-** Toki-mailari dagokionez, poliziaren eta erakundeen arteko koordinazio eta elkarlan hobea lortzeko, eta hitzarmen honetan lortu nahi diren helburuak aplikatzean sor daitezkeen arazoei irtenbide eraginkorra emateko asmoz, gomendatzen da horretaz mintzatzea Toki-mailako Koordinazio-batzordeetan, *Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 22.* artikuluan aurreikusita daudenak eta *Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen koordinazio-eginkizunak arautzen dituen 382/94 Dekretuak gero arautzen dituenak*, izan ere batzorde horiek berezko bereizgarriak gertutik ezagutzeko gunerik onenak baitira.

**HIRUGARRENA.-** Segurtasun-arrazoiak direla edo giza baliabide, baliabide tekniko edota materialen eskasiagatik, pintadak edo kartelak agertzeagatik eragindako udalak



berez ezin badio kentzeari edo ezabatzeari aurre egin, aipatutakoa burutzeko Ertzaintzaren beharrezko lankidetzara eskatu ahaliko dio Herrizaingo Sailari.

Zentzu horretan, ulertu behar dugu legez kontrako pintadak edo kartelak ezabatzeko behar diren baliabideak ez dituzten udalek arreta berezia behar dutela, baita segurtasun-arrazoiak direla eta lankidetzara handiagoa behar dutenek ere. Ondorio horretarako, dagozkien lankidetzara-hitzarmenak edo antzeko formulak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin eratu daitezke, jarduera protokolo honetan aurreikusitako helburuak betetzen lagunduko dutenak.

**LAUGARRENA.**- Terrorismoa goraiatzeko dituzten pintadak eta kartelak edo antzekoak burutu direnean, udalek, bere eskumenen esparruan eta bere aukerak eta baliabideak kontuan harturik, garbitzeko edo kentzeko kudeaketa egokiak burutuko dituzte, horretarako, Herrizaingo Sailak hitza ematen du urtero diru-laguntza hauek gaituko dituela:

- 2009. urtea: 500.000€ baino gehiagoko kopurua
- 2010. urtea eta hurrengoak: kantitatea ez da izango 2009an aurreikusitakoa baino gutxiago

Aurrekoari kalte egin gabe, eta erakundeen arteko lankidetzaren esparru propioan, Herrizaingo Sailak eragindako udalei jakinaraz diezaietke pintada zehatzak daudela, legea urratzen dutenak, eta ahalik eta argien adieraziko, eta ahal bada agiri grafikoak ere bidaliko dizkie:

- 1.- Datu zehatzak eta, hala badagokio, kendu nahi den pintada edo kartelaren eduki literala.
- 2.- Kokapen zehatza, kalea eta zenbakia ere espresuki adieraziz.

**BOSGARRENA.**- Jarraipen-batzordea osatuko da, EUDELeke eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko ordezkariak osatuko dutena, eta besteak beste honetaz arduratuko da:

- Lankidetzara-hitzarmen honen funtzionamenduaren aldizkako bilakaera eta betetzea burutuko du.
- Bere aplikaziotik datozen arazoak aztertuko ditu.
- Elkarrekin eta adostasunean hartuko diren irtenbideak bilatuko ditu.



**SEIGARRENA**.- Pintadak, kartelak eta abar ezabatzeagatik udalei sortutako gastuen konpentsazioa Herrizaingo sailburuaren Aginduaren bidez arautuko da.

Bilbon, bi mila eta bederatziko irailaren hogeita hamarrean.

**Jokin Bildarratz Sorron**  
**EUDELeko elkarteburua**

**Rodolfo Ares Taboada**  
**Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburua**